

GORA GURE AHIZPA PASIOTARRAK!

1

- Bertso Kanturako prest ondo jan-edanda
- Egia esateko gozoa izan da.
- Urrezko Ezteguan kanturako txanda
- Laukoteari pozik deiogula kanta.

2

- Urrezko Ezteguak... ez al da gehiegi?
- Berrogeita hamar urtez ez al da zilegi?
- Maitasunak edertzen ditu bihotz-begi
- Baietz esanda gero eten barik segi.

3

- Nik dakidanez behintzat ez ziran ezkondu
- Jesusegaz ei ziran gaztetan konpondu.
- Holan zelan leiteke andra ta gizondu?
- Maitasunez ahal dabe alkar zoriondu.

4

- Holan izan leiteke seme-alabarik?
- Bai, eta dozenaka ez dot zalantzarik.
- Nik ez dot ezagutu holango amarik
- Ezta maitasun bako Jaungoiko Aitarik.

5

- Askotxo ondo dabil maitasun atxakiz
- Bakotxaren kontuak Jaungoikoak dakiz.
- Bizia zelan sortu, noren erabakiz?
- Honeik bizi barria sortzen pozik dabiz

6

- Nundik dabe bizia sortzeko indarra?
- Bizi-mota asko dala hau jakin beharra.
- Bizi barria sortu izanik bakarra?
- Jesus kurutzekoa da euren Senarra.

7

- Ez dot ulertzen horrein esperientzia
- Horretarako ez da nahiko zientzia.
- Jaunak gugaz beharko dau pazientzia
- Azkenean bardina dogu herentzia.

8

- Mundu honek ez dauka erremediorik
- Ez eskatu ez daukan beste baliorik.
- Eukiak eukita be ez daukat nahikorik
- Bat baino ez dagola beste Jaungoikorik.

9

- Entzundakoaz badot Nahiko zer pentsatu
- Hau eginaz ez dozu egingo pekatu.
- Pozik bizi dirana ezin dot ukatu
- Gainerako guztia ezin guk juzgatu.

10

- Ederra izan dogu eleizako mahaia
- Bigarrena tabernan gozo ta alaia.
- Gorputz-arimaz jan ta edan dogu nahia
- Hau izan da benetan urrezko eztaia!

11

- Entzunalk entzun arren ezin konbentzidu
- Hortarako behar da barruz konbertidu.
- Dana dala, gaitezan danok dibertidu
- Eta geure artean jaia konpartidu.

12

- Irribarrez daukagu monja laukotea
- Ez da harritzekoa pozik egotea.
- Alperrik jarri Pedrok tente bibotea
- Ha be ez da izango horren arlotea!

13

- Laukotea hor dago isil eta mutu
- Eurak egindakoaz ez dira damutu.
- Sarri egin deuskue Konbentutik kuku
- Gura dauanarentzat ez dagoz ezkutu.

14

- Hau holan bada, monjak ez dira alperrak
- Danok bardin bagina sobra dagoz gerrak.
- Monjen etxea ez dau galduko ugerrak
- Danen partetik lauroi milaka eskerrak.

15

- Ez al gara guztiok alkarren senide?
- Etxe batera goaz danok bidez-bide.
- Danok bideko lagun eta adiskide
- Eta zeruko mahaian danok partekide.

16

- Gora ta gora beti gure Ahizpa onak!
- Zuentzat besarkadak bihotzez emonak.
- Bedeinka zaiezala kurutzan dagonak
- Hartu gure txaloak eta ZORIONAK!!!

A. Martzel